

# Finantza etikoak, ekonomia solidarioaren aldeko tresna politikoak

Cristina DE LA CRUZ AYUSO

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua  
Deustuko Unibertsitatea

Sarrera data: 2014/07/28

Onarpen data: 2014/10/06

---

**Aurkibidea:** 1. Sarrera. 2. Susmoak susmopean. 3. Jendearen finantzak: elkartasunaren balioa. 4. Finantzak jendearentzat: mailegu-eskubidea. 5. Finantzak jendearekin: finantza etikoak gizarte eraldatzeko tresna. 6. Ekonomia Solidariotik sustatutako zenbait esperientzia. 7. Ondorio gisa: finantza etikoak ekintza politikarako tresnak dira finantza bitartekotzan. 8. Bibliografia. 9. Web guneak.

---

## **Laburpena:**

Artikulu honek gaurko testuinguru ekonomikoaren finantza etikoen balioa eta garrantzia aztertzeaz gain, ekimen horien oinarriak deskribatzen ditu. Abiapuntua finantza etikoek ekonomia solidarioan daukaten lekua da. Azterketa ikuspuntu etikotik egin da, helburua finantza etikoen ekimenak dituen proposamenen artikulazioa deskribatzea da, beti ere, finantza etikoak gizarte eraldatzeko konprometuta dauden ekintza-sare kolektibotzat hartuz.

## **Hitz gakoak:**

Finantza etikoak, Banka etikoa, ekonomia solidarioa, krisia, ekintza-sare kolektiboak, gizarte eraldaketa

## **Resumen:**

En este artículo, se analizan el valor y la importancia de las finanzas éticas a la luz del contexto económico actual y se describen las bases de tales actuaciones. El punto de partida lo constituye el espacio que ocupan las finanzas éticas en la economía solidaria. El análisis se realiza desde una perspectiva ética y el objetivo es la descripción de la organización de las propuestas de la actividad de las finanzas éticas, entendiéndolo por tales aquellas redes de actuaciones colectivas que se encuentran comprometidas en la transformación de la sociedad.

**Palabras clave:**

Finanzas Éticas, Banca Ética, Economía Solidaria, Crisis, Redes de Acción Colectiva, Cambio Social

**Abstract:**

This article offers a reflection about the value and relevance of ethical finances in the actual economic context and outlines the pillars on which those initiatives are based. The approach is based on the consideration of the place that ethical finances in the solidarity economy. The analysis focuses on an ethical perspective and leads to describe the processes that ground the ethical finances' initiatives as collective action networks committed to social transformation».

**Key words:**

Ethical finances, ethical banking, solidarity economy, crises, collective action networks, social transformation.

**JEL classification:**

I31 General Welfare; Quality of Life

O15 Economic Development: Human Resources; Human Development; Income Distribution; Migration

O17 Formal and Informal Sectors; Shadow Economy; Institutional Arrangements

P34 Socialist Institutions and Their Transitions: Financial Economics

## 1. Sarrera

Zergatik ahalegindu horrenbeste krisiaren kausak azaltzen? Zer dela eta azaldu behar aspaldian igarritako egoera jasanezin horren zehetasunak? Analistak oso trebeak dira gertaera ekonomikoen kausa-efektu erlazioak azaltzen, eta horretarako kutsu zientifikodun adibide «sendo» asko ematen dituzte. Adibide horiek, jakina, lehenaldikoak dira eta horien ondorioak, zenbaitetan, saihestezinak izan dira.

Gauzak nahaspilatzeke ahalegina handia izan arren, gertatu dena erraz ulertzen da: hazten jarraitzeko beharrak bultzatuta, hipoteka saltaileak arrisku handiko hipoteka-maileguen arloan sartu ziren. Gauzak horrela, ezegonkortasun ekonomikoa zutenei aipatutako maileguak eskaini zizkieten. Baina nahiz eta gorabeheraren bat gertatu (langabezian geratu, uste-kabeko gastuak, eta abar) edota eskatutako dirua ordaindu ezin izan, ez ze-

goen trabarik mailegu horiek emateko. Askotan erositako etxebizitzak ez zuen zegokion mailegua estaltzen, eta, hala ere, etengabeko prezioen igoe-rak balizko «ez ordainketa» estaliko zuela uste zuten. Globalizazio ekonomikoari esker, hipoteka horiek mundu osoan zehar saldu dira behin eta berriro, komunikazio-sare globalean eragiketa horiek salerosketa elektronikotzat hartu izan direlako.

Krisiaren bidez, gaurko sistema ekonomikoak dituen egiturazko arazoei ezin zaiela bizkarra eman ulertu beharko litzateke. Kapitalismo neoliberal globalizatuak ekonomia errealean eta ingurumenean kalte jasanezinak sortzen ditu; akats guztiak egia badira ere, (esaterako, profesionaltasun, kontrol eta etika falta) ez da nahikoa zer gertatu den azaltzeko.

Beharbada gaur egun finantza etikoen proposamena ulertuko da. Alternatibak garatzeko garaia da. Herritarrek euren burua arlo ekonomikoan kokatzeko eta berarekin erlazionatzeko bestelako era batzuk eskaintzeko aldia da. Finantza etikoek eraikitzeke dauden arrazoiak ulertzen saiatzeko momentua da. Aipatutako ereduak hurrengo ebidentziarik handiena aditzera ematen du: gaixo eta ahula den sistema kapitalista neoliberal honek ondoen egiten duena baztertua da. Izan ere, ezberdintasun eta bidegabeberia esparruak handitzen ditu, oparoaldietan zein krisialdietan. Gainera, irabaziak bakar batzuen artean banatzen dituen sistema da, baina galerak, berriaz, guztion artean banatzen ditu.

Finantza etikoek hurrengo hauek baieztatzen ditu: finantza-bitartekotza beharrezkoa dela inbertitzeko errentagarritasun ekonomikoa bilatu gabe hurbiltzen diren pertsona edo erakunde-sarearen gainean eraikitzeke; zuzendaritza-karguen soldatak mugatu behar direla gehiegizko aldeak eta irabaziak saihesteko; bezeroen diruaren ibilbide osoan gardentasuna bermatu behar dela beren aurrezkiekin zer gertatzen den jakin dezatela; errentagarritasun ekonomikoa helburutzat dituzten eragiketak baztertu behar direla eta arlo jakin batzuetan inbertitu behar dela; eta, eredu hau sostengatzen duten eta korrontearen kontrakoak diren kultura zein herritar arduratsuak sendotu behar direla. Honekin guztiarekin finantza etikoen proiektuaren asmoa bada herritarrei jakinaraztea derrigorrezkoa dela finantza-bitartekotza beste era batean egitea. Bestela, behin eta berriro ikusi beharko ditugu gaurko sistema ekonomikoak sortzen dituen krisialdiak.

Benetako finantza etikoen proiektua diseinatzea ez da apeta bat, izan ere, gaurko sistema ekonomikoari buruzko azterketetan oinarritzen da. Beraz, ez da koiuntura-proposamena, baizik eta krisialdietan lantzeko gai interesgarria. Finantza-bitartekotzaren bitartez eraldaketa proposatzen da; horrek bat egiten du arlo ekonomikoan ditugun beste alternatiba batzuekin: bidezko merkataritza, nekazaritza ekologikoa, lan-arloan langileak txertatzeko eredu enpresarial alternatiboak, garapen iraunkorra, kontsumo arduratsua...

Finantza etikoak ekonomia solidarioaren proiektu politikoak dira. Praktika batzuk oinarri hartuta, finantza harremanak demokratizatu nahi dituzte, botere soziala ekartzeko era berriak sortuz. Finantza etikoek gaur egun trebatzen ez gaituzten finantza-bitartekotzaren zenbait balio berreskuratzen ditu. Balio horiek merkatu «konbentzional»aren erabateko alternatiba bihurtu dira, esaterako: elkartasunaren balioa, konfiantza, hurbiltasuna, tokiko balioa eta giza harremanen kalitatea, irabazteko asmorik eza, eta, lankidetzaz edo parte hartzea. Horiek guzti horiek harremanetarako onuratsat hartzen dira eta «besteei lotzen gatzaizkien zaila baina indar sendoaren baieztapena» (ILLOUZ, 2013:11) ahalbidetzen dute. Jarduera guzti hauek erabateko izaera politikoa dute: «politikoa denarekin eta jarduera politikoarekin nolabaiteko harremanean sartzen dira ezinbestean», eta, kapitalismoak berezkoak dituen birproduktio esku-hartzetan daude. Gaur egun neoliberalismoan gauzatzen dira eta beharrezkoa da beren agenteekin alde alde jartzea, negoziatzea edo behintzat hitz egitea» (CORAGGIO, 2011:167).

Politikoa denaren tematizazioa eta beste razionalitate zein logika-botere batzuen tematizazioa praktikaren bitartez gauzatutako finantza etikoaren gai nagusiak dira, adibidez: kapitala metatzea oinarritzat ez duten finantza alternatiboetarako eraikitze kolektiboen ereduak proposatuz; elkartasun eta erantzukizunean oinarritutako finantza harremanen logika abiapuntutzat hartuta pertsonak edo organizazioak elkartzuz eta mugiaraziz; eta, ekintza kolektibo hori «mailegu-eskubide»rako argudio indartsu (baita eztabaidagarria ere) bihurtuz (CRUZ y SASIA, 2008, eta 2010).

Honako hauek dira, besteak beste, finantza etikako ekimenak proposatzen dituzten muga-gai batzuk eta ohiko diskurtso ekonomikotik berrikuspen sakona behar dutenak: partaidetza erak; sostengua duten botere logikak; interes pribatu eta ekintza kolektiboen arteko tentsioa harmonizatzeak eskatzen duen oreka; eta, mailegu-eskubidearen inguru etiko zein politikoak sustatzen dituzten prozesu instituzionalak. (CARRASCO, 2006).

Jarduera horien bitartez merkataritzako ekonomia monetizatuak duen egitura menderatzaile eta baztertzaila «irrazionalizatzea» bilatzen da. Praktika horiek elkartasuneko ekonomiatik sustatzen diren esperientzien balioa txertatzeko marko zabalagoa eskaintzen dute, eta horrela mikropolitikak ikasteko esparru bihurtzen dira. Mikropolitika horiek bizitza hobe baterako beste ekonomia bat eskatzen dute, betiere, bizitzaren jasangarritasunarekin zerikusia duten prozesuen sustapena eta defentsa helburu izanik (prozesu sozialak, politikoak, ekonomikoak, kulturalak edo ingurumenekoak).

Finantza etikoa ekonomia solidarioaren aldaeretako bat da eta horren bitartez arlo ekonomikoaren beste logika eta prozesu batzuk martxan jarri nahi dira. Lan honetan ekimen hauek partekatzen dituzten ezaugarriak

deskribatu nahi ditugu. Horietako askok zenbait balio berreskuratzen dituzte, hala nola: elkartasuna, konfiantza, gardentasuna, hurbiltasuna, irabazteko asmorik eza, edota, finantza-bitartekotzan kooperatzea edo parte hartzea. Beren izaerak eta irismen politikoak bereizten ditu, bai beren motibazioagatik baita arlo ekonomikoan proiektu politikoak sortzeko gaitasunagatik ere. Dena den, ezertan hasi aurretik, kartografia laburra egin nahi dugu, baina horretarako aurreiritzi batzuk deuseztatu nahi ditugu, esaterako: zenbait ideiek joera hauek duten indar transformadorearen legitimotasuna kendu nahi dute eta ekonomiaren beste proposamen erregresibo batzuk arrazionalizatu nahi dituzte.

## 2. Susmoak susmoetan

*Finantza etikoak posibleak ote dira?* Dударik gabe, posiblea da gure gizarte bidegabeak eraldatzeko balio duen finantza-bitartekotza egitea. Arazoa da merkataritza neoliberalaren ereduak duen enpresa-estrategiaren motor nagusia ahalik eta etekin gehien lortzea dela, eta horrela banku-jarduera erabilpen ekonomikora mugatzen dela. Testuinguru horretan egia da banka-jarduerak eta etikaren eskakizunak ez direla bateragarriak. Finantza etikoek eskaintzen duten proposamena nabarmenki urruntzen da eredu horietatik. Finantza-bitartekotza justiziaren zerbitzupuan jartzeak talka egiten du sistema neoliberalak dituen blokeoekin. Kalteak eta desberdintasunak desegin nahi dituen finantza etikoen proposamenak ezin du oinarritzat hartu egituraz bidegabea den sistema baten zuzenketak egitea. Kontua ez da «produktu etikoak eta solidarioak» izatea, are gutxiago herritarrei sinestartzea solidarioa izateko edo gure gizarte eraldatzeko eredia izateko, web baten bidez GKE batek sustaturiko ekimen baten alde agertu behar direla. Problema sakonagoa eta premiazoagoa da, erabateko alternatiboak diren ereduak behar dira, eta ez, berriz, produktuak.

Lehenik eta behin, esan behar da finantza etikoak etengabe handitzen ari direla, eta dinamismo zein aniztasun handia daukatela, beraz, ez dira era bakarrekoak. Badaude mikrofinantza erakundeak, araututako nazioarteko erakundeak, mailegu edo finantza zerbitzu kooperatibak, hurbiltasuneko aurrezki tokiko taldeak edo bitartekaritza lanak egiten dituzten elkarteak eta fundazioak. Finantza etikoen mundua anitza da eta kolore asko ditu. Era beran, ekimen hauek dituzten forma juridikoak, garatzeko eta hazteko duten egitura soziala eta eskaintzen dituzten zerbitzuak ere anitzak dira. Finantza etikoek duten aniztasun horrek balio handia du, bai beren aberastasunagatik baita eraldatzeko gaitasunagatik ere.

Dena den, nahiz eta anitzak eta irismen desberdinekoak izan, ez dugu pentsatu behar isolatuak eta irismen txikikoak direnik; kontra-kontrakoa.

Haietako askok oso oinarri sendoa dute eta arlo ekonomikoaren *mailegu-eskubidea* errealitate bihurtzen ari dira. Ekimen guzti hauei «finantza etikoak» deritze eta ekonomia solidarioaren barnean daude. Ekimen horiek eduki ekonomikoa dute, baina gaur egungo sistema ekonomikoaren funtzionamenduaren guztiz kontrakoak dira.

*Beste herri horien bidea jarraitzen du; Frantzia imajina daitezkeen abalegin guztiak egiten ari da mailegu kooperatibista izateko. Serbiak, Errumaniak eta Bulgariak kreditu formula hau hartu dute. Kanadak dagoeneko lortu ditu lehenengo arrakastak ezarri zuenetik. Txipre eta Jamaika ere hasi berriak dira beren saialdiekin. Irlandak baditu dagoeneko bere lehenengo fruituak bere ereintza ekonomikotik. Hego Afrika ari da bilatzen bere ezaugarri ongien egokitzen zaien formula. Egipto mailegu kredituen kooperatiben beharraz jabetu da (...). Indiak oso hasiera itzaropentsua izan du. Japon eta Txinan jendea ari da ezin ongien antolatutako Schulze-Deliszch eta Raffeisen erakundeak egokitzen saiatzen. Badirudi mundu osoak mailegu eta kreditu kooperatiboaren erantzunak lortu dituela. Estatu Batuak eta Britainia Handia dira atzerapen tamalgarrian jarraitzen duten bakarrak (WOLF 1910)*

Ekimen hauek finantza bitartekotzan ibilbide luzea dute, batetik, saiatu dira ekonomia pertsonen zerbitzura jartzen, bestetik, elkartasun eta partaidetza demokratikoen ereduakin eraikitzen dira, eta, eraldatzeko sareak berreskuratu nahi dituzte. Azken finean, horiek dira gaur egungo alternatiba ekonomikoaren zenbait ekimenek dituzten ezaugarrien adibideak. Horiek guzti horiek benetako finantza etikoak dira; ekimen hauen ikuspuntutik, finantza-errekurtsoak *jendearenak* eta *jendearentzat* dira, eta, era berean, jakina, *jendearekin* eta *jendeak* kudeatuta.

### 3. Jendearen finantzak: elkartasunaren balioa

*Finantza etikoek duten ezaugarri garrantzitsuenetako bat da finantza-bitartekotzaren arloan alternatibak eraikitze eta finkatzeko duten bokazio politiko handia. Bokazio horrek herritar konprometitua sareetan artikulatzea bultzatzen du, horrez gain, elkartasunaren balioa ekintza kolektiboaren motor gisa berrerosten du.*

Finantza etikoek, zentzu errotikoan, jokabide solidarioak elkarlotzea bultzatzen dute. Horretarako, herritar-sare trinkoetan egituratzen dira, honako balio hauen inguruan: bitartekotza soziala, elkartasuna eta inklusio soziala. Finantzaren ikuspuntutik aurrezkien eta maileguen bitartez egiten da. Elkartasuna dela-eta, aurrezki hori entitatera eramaten da eta ahalik eta

errentagarritasunik handiena bilatzen da, baina berezko eskubide batzuei uko egin gabe, zenbait kasutan, itzulketa-bermea edo ordainketa. Horrek, eta ez besterik, azaltzen du finantza etikoek bultzatzen duten finantza bitartekotzaren onura.

Horregatik, finantza bitartekotzan finantza etikoak justizia eraikitzeko egituratzat har daitezke. Era berean, finantza etikoek elkartasuna eta banakako erantzukizuna zein erantzukizun kolektiboaren bitartez harreman ekonomiko ez-baztertzaila bultzatzen dutela esan daiteke.

#### 4. Finantzak jendearentzat: mailegu-eskubidea

*Finantza etikoek duten beste ezaugarri bat mailegu-eskubidea aitortzea eta betetzeko konpromisoa izatea da. Mailegu-eskubidea aitortzeko erantzun sendorik ematea posiblea ez bada, nahiz eta hori betetzeko konpromisoa egon, ezinezkoa da gure gizarte ezberdinen finantza-bitartekotzan begirada etikoak duen eraldatzeko indarra jasotzea.*

Merkatuak erabat injustuak eta berdintzaileak ez diren banaketak bultzatzen ditu, eta horrek arlo ekonomikoaren banaketaren irizpidea dakar, hau da, «dirua, daukanak eraman dezala». Hala ere, finantza etikoek finantza-bitartekotzan mailegu-eskubidearen garrantzia azpimarratzen dutenean, bankuen oinarritzko funtzioan jartzen dute arreta, eta, esan bezala, hauxe aurrezkoa eta mailegua lotzean datza, hau da, aurrezkiak uzten dituzten *personen* eskubideak eta mailegua eskatzen dutenen eskubideak lotzea.

Finantza etikoak badaki ze garrantzitsua den nori ematen zaion mailegua, eta nori ez. Diruarekin zer egin erabakitzeak (ez soilik finantza etikoetan, baizik eta edozein finantza entitatetan) balio batzuen arabera jokatzeko eskatzen du. Lehenesten den irizpidea errentagarritasun ekonomikoa bada, unean uneko errentagarritasunik handiena emango duena finantzatzeko da, eta horren arabera, erabakia kalkulu numeriko eta aukeraren arabera izango da, edozein hausnarketa etikotatik kanpo. Irizpideak finantzatzeko arloa mugatzeaz gain, ezberdintasun handiaren eta ingurumenaren desoreken kontrako borroka lehenesten badu, finantzatzeko arloak baino ez dira izango inpaktu sozial positiboa ekarriko dutenak; inpaktu horiek gure gizarteak justagoak eta jasangarriak egingo dituzte. Esan behar da finantza etikoen barruko edozein entitatek ez duela esaten haiek kudeatzen dituzten kreditu-jardueren esparruek bakarrik merezi dutenik maileguak jasotzea. Entitate horiek arlo jakin batzuetan baino ez direla aritzen baieztatzen dute, euren ustez, arlo horietan, hain zuzen ere, justiziaren benetako izana jokoan baitago.

Mailegu-eskubidearen aitortze eraginkorrenekin konprometituta daude, eta finantza etikoek finantzaketa emateko dituzten irizpideak gutzit *bir-*

*sortzaileak* dira. Horren bidez honako hau lortu nahi da: finantza-jarduerak bere jarduera espekulatzailerekin ekonomia erreala ez kaltetzea, edo, injustiziak zein ingurumenaren desorekak sor ditzaketen praktikak ekiditea. Finantza etikoek onartu dute ezin dela planteatu ekonomia alternatiboaren jarduera ekonomikoaren eredurik, hurrengo hauek kontuan hartzen ez badira: urrakortasuna, hauskortasuna, babes eza edo bazterkeria; izatez, horiek guztiak izan badirelako. Begirada etikoa ez da «izan behar denari» buruko filosofia moralaren «errealitatek urrun» dagoen hausnarketa. Errealitate sozialari loturiko etika da, larrialdi sozialak ezagutzen ditu eta gure gizartean justizia izateko benetako eskakizunak ulertzen ditu.

Horrexegatik, finantza etikoa espekulazioaren kontrako alternatiba bat baino askoz gehiago da. Jardueraren hasieratik bertatik injustiziei aurre egin nahi dien alternatiba da. Horren ondorioz esaten dugu, batetik, justiziaren aldeko finantza-bitartekotza dela, eta, bestetik, lehenasuna mailegua behar duten (eta ematen ez dieten) pertsonak edo kolektiboak aintzat hartzea dela.

## 5. Finantzak jendearekin: finantza etikoak gizartea eraldatzeko tresna

*Beharrezkoa da azpimarratzea finantza etikoek duten berezko ezaugarria gizarteak eraldatzeko tresna izateko. Finantza etikoek aldarrikatu eta mugitu nahi diren pertsonen eta egituren elkartasunaren balio politiko eta eraldatzailea jasotzen dute; horrez gain, finantza sistematik bazterturik geratu diren pertsonen aukerak emateko egiturak sortzen dituzte.*

Finantza etikoak kritikoak diren ekintza kolektiboko sareetan eraikitzen dira eta finantza-bitartekotza klabe politikoan ulertzen dute. Sare horiek beren balio soziala berreskuratzen ari dira eta eraldatzeko egitura trinkoak sortzen ari dira, hain zuzen ere, beraiek duten logika ekonomikoa ez baztertzailerearen bitartez.

Era horretan, finantza etikoak ekonomia solidarioaren ekimenez gizartratzen dira. Arlo ekonomikoa eta arlo horren barruko erakundeak ere, herritarroi dagokigun arlo garrantzitsua dela kontuan hartzen dute. Hori dela eta, jarduera, harremana eta erabakiak justizian oinarritzen saiatzen den erakundetzat onartu da. Gurea bezalako merkatuko gizarteetan, finantza etikoek eraiki beharreko prozesuen erabakiak justuagoak izan daitezela lan egiten dute, eta ez, berriz, interes partikularren edo boteretsuenen eskarrien arabera.

Hortaz, finantza etikoak (ekonomia solidarioaren arloko beste ekimen batzuekin bat) gizarte justuagoak eraiki nahi dituzten ekimenak dira. Asmo hori injustizien aurrean benetako aukerak eskaintzen gauzatzen da, beti



ere, egunero lan egiten duen egitura eta antolakuntza izanik. Gaur egun, arlo ekonomikoko erakunde gutxi ukatuko lukete helburu horren onura, baina era berean, gutxi dira justizia egiteko asmo hori praktikan gauzatzeko ebidentziak eskaini ahal dituztenak. Finantza etikoek, berriz, hori egiten dute, gure gizartean dagoen justizia falta agerian utziz, eta sumatzen dituzten injustizia estrukturalaren testuinguruak identifikatzeko erakundeen zerbitzuean jarriz. Finantza etikoak ezin dira garatu errealitate hauetatik kanpo, baizik eta horien zerbitzura lan egin behar dute.

## 6. Ekonomia Solidariotik sustatutako zenbait esperientzia

Ekonomia Solidarioak antolatutako herritarren esku dauden finantza ekimen alternatiboak sortzea bultzatzen du. Lehenik, beharrezkoak direlako ziklo ekonomiko osoa osatzeko (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa) eta ikuspuntu horretatik lortzen delako Ekonomia Solidarioaren garapenerako balio instrumentala. Bigarrenik, diru kontuetarako finantza tresna ez ezik, tresna politikoa ere proposatzen zaiolako jendeari. Pertsonak eguneroko kontsumoan dituzten beste alderdi batzuetan bezala, finantza etikoek *gizartea eraldatzeko militantzia ekonomikoa* proposatzen dute. Izan ere, gure dirua erabiltzeak lagundu ahal duelako sistema ekonomikoa jarraitzen, edo, bestela, justuagoak, bidezkoagoak eta solidarioagoak diren eredu alternatiboak ezartzen lagundu ahal duelako.

Orokorrean, Ekonomia Solidarioaren barruko proposamenek hurrengo jarduera hauek garatzen dituzte: i) inpaktu sozial eraldatzailea sortzen duten jardunetarako finantzaketa (proiektu sozialak, ekologikoak, kulturalak edo solidarioak), eta gure munduan injustizia zein endekapena bultzatzen duen edozein ekintza zein jarduera espekulatzailea baztertzea; eta, ii) herritarrei erantzukizunez aurrezteko eta inbertitzeko tresnak eskaintzea. Horrela herritarrek finantzen lanabesak eraikitzen eta kontrolatzen aktiboki parte hartzen dute.

Beraz, oso argi dago ekimen horien irabazi gabeko asmoa. Izan ere, errentagarritasunari buruzko beren ulerkera bankuek eta finantza arloak erabiltzen duten errentagarritasunarekin konparatuz gero, guztiz alternatiboa dela esan daiteke. Horrela, nahiz eta bidegarritasun eta jasagarritasun teknikoa zein ekonomikoa beharrezkoak izan, errentagarritasun eta onura ekonomikoak ez dira bere helburuak.

Beste alde batetik, ekimen horiek ezinbestean daude erroturik tokian tokiko errealitateetan, eta mugimendu sozialekin ere harreman estua dute; gainera, Ekonomia Solidariokoekin harremana izateaz gain, alternatiba eraldatzaileak sustatzen dituzten guztiekin ere izaten dute (giza bazterkeriaren kontrako borroka, elikadura subiranotasuna, feminismoa, ekologis-

moa...)). Dentsitaterik eta inpakturik handiena bilatzen duten ekimenak (finantza etikoak kasu) eraikitzeko eta garatzeko aipatutako erakunde-sareetan oinarritzen dira.

Duela zenbait hamarkadatik Espainiako estatuan hurbileko aurrezkiak atxikitzen duten ekimenak egon dira, batez ere, mailegu txikien bitartez egindako tokiko ekimenak izan dira. Hauen bidez, ekimen eraldatzai-leak edo gizarte-bazterketa izateko arriskuan dauden pertsonen oinarritzko beharrak asetzeko finantzaketa egin da. Gaur egun, REASen babespean, finantza alternatiboaren sarea eraikitzen ari da horiek bezalako hamar bat entitateekin. Banka jardueren inguruan (parabankarioak izenekoak), azpimarratzekoa da *Coop 57*-ren esperientzia, izatez, «zerbitzu kooperatiba da eta bere errekursoen bidez, enplegua, kooperatibismoa, asoziazionismoa eta solidaritatea orokorrean sustatzen dituzten ekonomia sozialeko proiektuei maileguak ematen dizkie; horrez gain, printzipio etikoetan eta solidarioetan oinarritutako jasagarritasuna bultzatzen dute». Katalunian jaio eta bertan garatu zen nagusiki, baina baditu lurraldekako sailak Andaluzian, Aragoien, Galizian eta Madrilan. Gaur-gaurkoz 400 entitate-bazkide baino gehiagok osatzen dute eta baditu 2300 laguntzaile.

Bukatzeko, Fiare finantza etikoen proiektua dugu. Finantza etikoen barruan dagoen ekimenik handiena da eta beste sare zein mugimendu sozialekin batera (lehen aipatutako finantza etikoen ekimenak barne) Ekonomia Solidarioaren mugimendua sustatzen dute. Fiare 2001ean eratu zen gizarte hainbat erakundek bultzatua eta gaur egun 4 milioi eta erdi euroko ekarpena egin duten 450 entitate eta 3000 laguntzaile ditu. Fiarek banku tresna moduan lan egin nahi du herritarren aurrezkiak bideratzeko —maileguen bitartez— eta balio sozial eraldatzaile handia duten proiektuei laguntzeko. Horretarako, besteak beste, parte hartzea, autogestioa eta lurraldetiko hurbiltasuna bultzatzen ditu. Eredu horrek pertsonak eta erakundeak lotzen ditu, lurraldeko Taldeen (dagoeneko 19 dira Estatu osoan) egitura parte hartzaile sendo eta egonkorraren bitartez. Horrela bermatzen da, hain zuzen ere, agenteak (bazkideak eta bezeroak) lotzen dituen eta interes kapitalistatik kanpoan dagoen aurrezki-maileguen ibilbide ekonomikoak lurraldeetan sustatzea eta biltzea.

## **7. Ondorio gisa: finantza etikoak ekintza politikarako tresnak dira finantza bitartekotzan**

Gure asmoa finantza etikoaren ekimenen zutabeak azaltzea izan da. Haren zentzua, izaera, eta irismena ulertu ahal izateko zenbait aspekturi garrantzia eman diogu. Horretarako, hasteko, eraldaketa sozialarekin duen izaera politiko konprometitua azpimarratu dugu. Izaera hori, mailegu-es-

kubidearen aitortza dela-eta, gaurko finantza sistematik baztertutako gaitasunak behar dutenenei loturik doa. Konklusio gisa, ibilbide honetan hurrengo puntuak nabarmendu ahal ditugu:

- Finantza-bitartekotzan begirada etikoak justiziaren esparruan kokatzen gaitu nahitaez. Begirada horrek eta perspektiba honek behartzen gaituzte jarduera horren erronka moralak aztertzea ezinezkoa dela onartzerara. Beti ere, finantza etikoak gizarteari eskaintzen dion oinarritzko onura (mailegua, hain zuzen ere) eskuratzeko baldintzak kontuan hartu gabe. Hasierako planteamendu honetatik maileguak dituen ondorioak kontuan hartzen badira, finantza etikotzat har daiteke, bai ematen denean (ea zer sustatzen den mailegua ematen denean), baita ematen ez denean ere (nori eskaintzen zaion eta nori ukatu).
- Finantza etikoek ekidinezinezkoa den dimentsio politikoa dute, izan ere, haiei dagokie gure gizarteen eremu publikoa eratzea. Dimentsio politiko horretan, finantza etikoek aurrezkoa eta mailegua lotzeko erronka hartu dute; gainera, mailegu-eskubidearen aitortzak edo betetze eraginkorrak eskatzen duten eskubide eta beharraren arteko orekan dauden agenteak batzen dituzte. Perspektiba horrek Estatuak finantza etikoak on publikotzat aitortzea legitimatzen du.
- Lotura horren bidez, ekonomia solidarioa izendapenarekin ezagutzen dugun finantza etikoen proposamen politikoa arlo ekonomikoa eraldatzeko proposamenen barruan sartu da. Bi norabide ditu: bate-tik, arlo horri finantza tresna ematea; eta bestetik, arlo hori osatzen duten entitateak deitzea proiektu bat eraikitzeko.
- Finantza etikoak mailegura hurbiltzea guztiz birsortzailea da beren jarduera bideratzen baitute, bereziki, finantza sistematik baztertu-rik dauden pertsonengana. Rol politikoaren bidez bere kausak eta ondorioak gainditzeko konprometituta dauden erakunde guztiei injustiziaren kontrako borrokarako finantza lanabesa eskaintzen diete.
- Finantza etikoen proiektuek duten egitura sozialaren bitartez eta eraikitzeko edo hazteko estrategiaren bitartez, ezinbestekoak diren hiru konpetentzia finkatu nahi dituzte: beren jarduerak injustuak diren errealitateen ezagutzei begira bideratzea, mailegua inklusio so-zialeko beste lanabes batzuei lotzea, eta errentagarritasun ekonomi-koak dakarten blokeoa ekiditea.
- Etikaren erronkek duten izaera dinamikoak eta multifaktorialak fi-nantza etikoen «sistemak» eratzea dakarte. Horrexegatik, aipatutako erronka horiei hainbat jardute egokitu ahal zaizkie, hala nola: lan kulturala, eragin politikoa, banku jarduera edo finantza bitartekotza parabankarioa.

## 8. Bibliografía

- ALSINA, O. (koord.) (2004): *La banca ética: Mucho más que dinero*. Icaria, Bartzelona.
- ARTIME, D. (2012): «Banca ética: Dinero contra el sistema». *Atlántica XXII: Revista Asturiana De Información y Pensamiento*, 18, 43-44 or.
- BOLEDA, I. (2004): *Banca ética: mucho más que el dinero*. Oikocredit, Bartzelona.
- BRANDEIS, L.D. (2012): *El dinero de los demás. Y como lo utilizan los banqueros*. Ariel, Bartzelona.
- CARBONI, V. (2011): «Banking on ethics». *Campagna per la riforma della banca mondiale*. <http://www.crbm.org/2011/08/26/banking-on-ethics/>.
- CARRASCO, C. (2006): «La economía feminista: una apuesta por otra economía»: in Vara, M.ªJ. (koord.), *Estudios sobre Género y Economía*, Madril, Akal, 29-62 or.
- CARRASCO, C. (2013): »El cuidado como eje vertebrador de una nueva economía». *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 31, Zk.:1, 39-56 or.
- CASTRO, M. eta ROMERO, N. (2011): «Cooperativas de crédito y banca ética ¿un camino por explorar?» *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, Zk. 72, 262-300 or.
- COMÍN, A. eta GERVASONI, L. (koord.) (2012): *Democracia Económica: Hacia una alternativa al capitalismo*. Bartzelona, Icaria.
- COHEN, G. A. (2000): «Libertad y dinero». *Estudios públicos*, 80.
- CORTÉS GARCÍA, F. (2012): «La inversión socialmente responsable y la banca ética. Alternativas», *Revista de Análisis y Reflexión Teológica*, 43, 225-234 or.
- CORAGGIO, J.L. (2011): *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*. Quito-Ecuador: Abya-Yala.
- DE LA CRUZ, C. eta SASIA, P. (2010): «La banca ética como herramienta de acción política». *Icade. Revista cuatrimestral de las Facultades de Derecho y Ciencias Económicas y Empresariales*, Zk. 80, 185-210 or.
- DE LA CRUZ, C. eta SASIA, P. (2008): «El Proyecto Fiare: Intermediación Financiera desde los principios de la Economía Solidaria». *XI Jornadas de Economía Crítica*, Bilbao. [http://www.economiasolidaria.org/files/sasia\\_santos.pdf](http://www.economiasolidaria.org/files/sasia_santos.pdf)
- FERGUSON, A. (2012): *Cuando muere el dinero*. Madril, Alianza.
- GÁLVEZ, L. eta TORRES, J. (2010): *Desiguales*, Bartzelona, Icaria.
- GASSIOT, R. (2013): «Las finanzas éticas como instrumento al servicio de la economía solidaria. La experiencia de Coop57», in *Cuadernos de Trabajo Social* 26, Zk. 1, 75-84 or.
- GEORGE, S. eta SABELLI, F. (1994): *La religión del crédito. El Banco Mundial y su Imperio Secular*. Bartzelona, Intermón.
- GÓMEZ C. (2006):, «El dilema de los microcréditos en las políticas de desarrollo». Bilbo, *Cuadernos Bakeaz*, Zk. 76.
- GUERRA, P. (2012): *Miradas globales para otra economía*. Bartzelona: Setem.
- ILLOUZ, E. (2013): «Contra el deseo», in Bartzelona. *La Maleta de Portbou. Revista de Humanidades y Economía*, zk.1.

- LAZZARATO, M. (2013): *La fábrica del hombre endeudado. Ensayo sobre la condición neoliberal*, Buenos Aires, Amorrortu.
- MELIÁN, A.; SANCHIS, J.R. eta SOLER, F. (2010): »El Crédito Cooperativo como instrumento financiero para el fomento del emprendimiento en tiempos de crisis». *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 68, 111-139 or.
- PEREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2009): «Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate». *Papeles de Economía Solidaria*, Zk.1. Bilbo: REAS Euskadi. [[http://www.economiasolidaria.org/files/papeles\\_ES\\_1\\_ReasEuskadi.pdf](http://www.economiasolidaria.org/files/papeles_ES_1_ReasEuskadi.pdf)]
- OVEJERO, F. (2008): *Incluso un pueblo de demonios: democracia, liberalismo, republicanismismo*. Katz, Madril-Buenos Aires.
- TOÑA, A.; SASIA, P.M. eta GARIBI, J. (2006): «Posibilidades de estructuración de una Banca Ética en España», *Documentación Social* Zk. 142 157-174 or.
- SANCHEZ, P. (2002) «Los fondos de inversión éticos y su dimensión ecológica: herramientas para un desarrollo sostenible». *Ecosistemas XI*, Zk. 1, (irtarrila-apirila), 3 or.
- SASIA, P. eta DE LA CRUZ, C. (2008): *Banca Ética y Ciudadanía*. Madril, Trotta.
- SASIA, P. (2012): «La Banca Ética en Europa: el enfoque del crédito como criterio de configuración de un espacio de alternativa», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, Zk. 75, 277-300.
- SASIA, Pedro Manuel y DE LA CRUZ, Cristina, *Banca ética y Ciudadanía*, Madril, Trotta, 2008.
- SERRANO, A. (2009): «Banca ética: La otra cara de la moneda». *Monitor Educador*, 131, 44-45 or.
- SOLER, F.V. (2002): «La identidad cooperativa como garantía de futuro: las cooperativas de crédito ante la trivialización de sus principios», *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, zk. 40, 215-242 or.
- TEIS, X. (2011): *Cómo cambiar el mundo con tu dinero, alternativas a la banca convencional*. Bartzelona, Icaria.
- TEIS, X. (2012): «Finanzas éticas: Economía y personas». *Economía Exterior: Estudios de la Revista Política Exterior sobre la internacionalización de la Economía Española*, 60, 108-114 or.
- TORO, G., (2009): *La pobreza, un gran negocio: Un análisis crítico sobre oeneges, microfinancieras y banca*. Bolivia, Mujeres Creando.
- WALZER, M. (1993): *Las esferas de la justicia*, México, FCE, 1993.
- WOLF, H.W. (1910): *People's Banks*. London, P.S. King & Son.
- ZELIZER, V.A. (2011): *El significado social del dinero*, Mexico, FCE.

## 9. Web guneak

FEBEA Federación Europea de Bancos Éticos y Alternativos: [www.febea.org](http://www.febea.org)

INAISE International Association of Investors in the Social Economy: [www.inaise.org](http://www.inaise.org)

*FIARE proiektua*: [www.proyectofiare.com](http://www.proyectofiare.com)

*Banca Popolare Etica*: [www.bancaetica.com](http://www.bancaetica.com)

*Triodos Bank*: [www.triodos.es](http://www.triodos.es)

*Oikocredit Internacional*: [www.oikocredit.org](http://www.oikocredit.org)

*Coop57: servicios financieros éticos y solidarios*: [www.coop57.coop](http://www.coop57.coop)

*Fondo de Solidaridad Paz y Esperanza*: [www.fondodesolidaridad.org](http://www.fondodesolidaridad.org)

*Asociación por un Interés Solidario O Peto*: [www.opeto.org](http://www.opeto.org)

*Acció Solidària Contra l'Atur*: [www.acciosolidaria.cat](http://www.acciosolidaria.cat)

*GAP: Grupo de Apoyo a Proyectos*: [www.gap.org.es](http://www.gap.org.es)

*Economia Solidarioaren sarea*: [www.economiasolidaria.org](http://www.economiasolidaria.org)

*Bank Track*: [www.banktrack.org](http://www.banktrack.org)

*Jak Proiektua*: <http://proyectojak.blogspot.com.es/>